

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gasteiz bezalako hiri berde batean oso ohikoa da bizikletaz leku batetik bestera mugitzea, eta, ondorioz, errazagoa da bizikleta hori apurtzea edo hondatzea. Askotan, ez dugu astirik izaten tailer batera joateko konpontzera; horregatik, gure enpresan gure bezeroen arazoak eraginkortasunez eta azkar konpondu nahi ditugu, gainera, gure etxolak hiri osoan banatuta daudenez, gure bezeroek ez dute denbora asko beharko gertakariaren lekutik etxoletara joateko.

Horretaz gain, aholkularitza ere eskaintzen dugu, gure bezeroentzat ez delako bat ere erraza bizikleta bat konpontzea. Hala ere, gure enpresaren webgunearen erabilera ere, garrantzi handikoa izango da.



